

# Egoeraren Azterketa



**Denon kontua, emakumeon kontura?**

*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**Aldi baterako  
19.000 langile gehiago**

**Sinatutako kontratuen %92,6  
aldi baterakoak dira**

**Istripuak ugaritu egin dira:  
66.800 istripu;  
770 larriak eta hildakoak**

**Ekonomia %3aren oso gainerik  
hazten ari da**

**Menpekotasunari buruzko Legea:  
ez unibertsala, ez publikoa**

# Hego Euskal Herriko (\*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATUA	2005	12 HILE LEHEN.	2004 BUK.
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (16-65 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA)</b>					
JARDUERA TASA	%	05 IV	71	70,5	70,5
" 15-EBn	%	05 III	71,2	70,8	70,8
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	05 IV	1.227.500	1.119.500	1.119.500
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	05 IV	1.006.900	969.200	969.200
ALDI BATERAKO TASA	%	05 IV	31,2	30,4	30,4
" 15-EBn	%	05 II	14	13,4	
BIZTANLERIA LANGABETUA	KOPURUA	05 IV	66.900	85.100	85.100
LANGABEZI TASA	%	05 IV	5,2	6,6	6,6
" 15-EBn	%	05 IV	7,7	8,1	8,1
GAZTEEN LANGABEZI-TASA	%	05 IV	13	17,3	17,3
" 15-EBn	%	05 IV	16,6	16,8	16,8
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA	%	05 IV	6,1	7,7	7,7
" 15-EBn	%	05 IV	8,7	9,1	9,1
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	05 URT-ABE	1.036.103	1.003.619	1.003.619
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	05 URT-ABE	76.776	74.836	74.836
<b>ENPLEGU ERREGULAZIOA</b>					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	05 URT-AZA	430	485	545
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	05 URT-AZA	8.440	9.958	11.971
<b>LAN ISTRIPUAK</b>					
BAJADUN LANGILEAK	KOPURUA	05 URT-ABE	66.759	62.115	62.115
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	05 URT-ABE	769	731	731
<b>ESKAINNTZA ETA ESKARIA</b>					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	05 URT-ABE	10,4	1,9	1,9
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	05 URT-ABE	-0,1	5,5	5,5
BPGa EAEn	% ALD.	05 IV	4,2	3,1	3,1
BPGa NAFARROAn	% ALD.	05 IV	3,3	3,2	3,2
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	05 IV	3,9	3,3	3,3
BPGa 15-EBn	% ALD.	05 IV	1,7	1,8	1,8
<b>PREZIOAK</b>					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	05 ABE	3,7	3,2	3,2
" 15-EBn	%	05 ABE	2,2	2,2	2,2
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.					
Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE.					
2006/03/06an eguneraturiko informazioa			102. zbk. <b>Egoeraren Azterketa</b> 2006ko martxoa		



# Aurkibidea

<b>SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>GIZARTE ETA EKONOMIA EGOERAREN AZTERKETA .....</b>	<b>4</b>
1. 28.000 lagun gehiago lanean 2005ean .....	4
2. 19.000 langile gehiago aldi baterako enpleguarekin.....	4
3. Langabeziak eragin handiagoa du emakumeen kolektiboan.....	5
4. Lege-iruzurra, sinatzen diren kontratuetan .....	6
5. 42.000 langile gizarte segurantzarik gabe .....	7
6. Enplegu-erregulazioa urritu egin da .....	7
7. Lan-istripuak ugaritu egin dira .....	7
8. Ekonomiak gorantz jarraitzen du.	8
9. Prezioek 15-EBkoen gainetik hazten segitzen dute .....	9
<b>PUNTAKO GAIAK .....</b>	<b>10</b>
Autonomia pertsonala sustatzeko eta menpekotasun-egoeran daudenei laguntzeko lege aurreproiektua. ELAren balorazioa .....	10

## ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A

## Sarrera

Egoeraren azterketa honetan, Hego Euskal Herriko enpleguari buruzko 2005eko informazioari eta ekonomiak ekitaldi osoan izan duen bilakaerari begiratuko diegu.

Aurtengo martxoaren 8an, menpekotasunen bat dutenen zainketa (adineko, elbarri, adin txikiko, gaixo eta abarrena) izan da gure goiburu nagusia. Espainiako gobernuak prest dauka Menpekotasunari buruzko Legearen aurreproiektua; hileko puntako gaien atalean egingo dugu beraren gaineko balorazioa.

*\* Txosten hau 2006ko martxoaren 6an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

## 1. 28.000 lagun gehiago lanean 2005ean

Hego Euskal Herrian (HEHn), 2005eko azken hiruhilekoan, 100 pertsonatik 71k zeukaten lana edo ari ziren modu aktiboan bilatzen; horrek esan nahi du **jarduera-tasa** 0,5 puntu hazi dela aurreko ekitaldiko tarte beraren aldean. Hortaz, tasa hori 15-EBkoaren mailara heldu da ia, Europakoa %71,2koa izan baitzen, 2005eko hirugarren hiruhilekoan.

Gizonezkoen tasa %80,5koa izan da, hots, 15-EBkoa (%79,2) baino 1,3 puntu altuagoa; emakumezkoen kasuan (%61,1), berriz, 15-EBkoa (%63,2) baino 2,1 puntu baxuagoa izan da.

Beraz, HEHn, jarduera-tasa orokorra 15-EBkoaren antzekoa da; zehazki esateko, altuagoa da oraindik gizonezkoen kasuan, eta baxuagoa emakumeei dagokienez. Ondorioz, generoen arteko aldea handiagoa da HEHko jarduera-tasetan (19,4 puntuko aldea), 15-EBkoetan (16 puntuko) baino).

2005ean izandako bilakaerari buruz esan behar dugu gizonezkoen jarduera-tasa 0,2 puntu jaitxi dela, eta emakumezkoena 1,2 puntu igo.


**2005aren amaieran, lanean zebilen biztanleria** 1.227.500 lagunek osatzen zuten. Enpleguak 711.200 izanik, gizonak lanean dabilen biztanleria osoaren %58 izan dira, eta emakumeak, 516.100 enplegurekin, %42.

Horrela, HEHko 16 eta 65 urte bitarteko 100 pertsonatik 67,3k dute enplegua (enplegu-tasa esaten zaio), 15-EBk 2005eko bigarren hiruhilekoan izan zuen %65eko tasa baino 2,3 puntu altuagoa, alegia. Gizonen enplegu-tasa %76,9koa izan da, 15-EBkoa (%72,7) baino 4,2 puntu altuagoa, eta emakumeen tasa %57,4koa, bai HEHn bai 15-EBn. Hortaz, gure enplegu-maila Europakoa baino altuagoa da, gizonen tasa altuagoaren eraginez.

Enpleguaren bilakaeraren azterketak erakusten duenez, **2005ean 28.000 lanpostu sortu dira**, eta horrela, lanean dabiltzanen kopurua %2,3 hazi da. Gizonezkoen enplegua 9.700 lanpostutan hazi da, eta emakumezkoena, 18.300etan; horren arabera, ekitaldian sortu diren lanpostuen %34,6 gizoni egokitu zaie, eta %65,4 emakumei.

Sektoreka aztertuta, lanean dabilen biztanleriaren %63,1ek (775.100 lagun) zerbitzuen sektorean dihardu; %25,5ek (312.500) industria sektorean, %9,6k (117.600) eraikuntzan, eta %1,8k (22.100 lagun) lehen sektorean.

### LANEAN DABILEN BIZTANLERIA SEKTOREZ SEKTORE. HEH, 2005eko IV. HIRUHIL.



Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

**Soldatapeko langileak** 1.006.900 izan dira; horrek adierazten du 2004ko laugarren hiruhilekoan baino 37.700 gehiago izan direla. Soldatapeko enplegua enplegu osoa baino gehiago hazteak esan nahi du soldatapekoak ez diren enpleguen kopuruak 9.700eko murrizketa izan duela ekitaldian zehar. Soldatapeko gizonak 561.600 izan dira (2004ko hiruhileko berean baino 11.200 gehiago), eta emakumeak 445.200 (26.400 gehiago).

Beraz, enplegua duten 100 lagunetik 82 soldatapekoak izan dira (%79 gizonezkoen kasuan, eta %86,3 emakumezkoenean).

## 2. 19.000 langile gehiago aldi baterako enplegurekin

Enpleguari buruzko informazioa kaleratzen den bakoitzean, enplegua sortzearen onura azpimarratzen da, orokorrean, titularretan eta iruzkintetan. Hala ere, enplegu gehiago egote hutsa ezin da, besterik gabe, onuratzat hartu; sortzen den enpleguaren kalitateari ere begiratu behar zaio, eta azken urteotan, eskas-eskasa da, izan ere.

Zehazki, 2005aren amaieran, soldatapeko 313.500 langile ari ziren **aldi baterako kontratuarekin edo kontraturik gabe** lanean, hau da, aurreko ekitaldiko hiruhileko berean baino



19.000 gehiago. 2005ean sortutako soldatapeko enpleguaren %50 aldi baterakoa izan dela esan nahi du horrek.


Zenbaki horiek %31,2ko *behin-behinekotasun tasa* islatzen dute, 2004aren amaierakoa (%30,4) baino 0,8 puntu altuagoa, alegia. *Gizonen* behin-behinekotasun tasa %26,6koa izan da, hots, aurreko urteko epealdi berekoa baino 1,6 puntu altuagoa. Ekitaldian zehar puntu erdia jaitsi den arren, *emakumeen* egoera are okerragoa da aldagai honetan, soldatapeko 100 emakumetik 36,9 aritu direlako aldi baterako kontratuarekin edo kontraturik gabe.

15-EBko behin-behinekotasun tasa %14koa izan zen 2005eko bigarren hiruhilekoan (HEHkoaren erdia baino baxuagoa); gizonena %13,4koa izan zen, eta emakumeena %14,7koa. Horrek agerian uzten du HEHko behin-behinekotasun tasa, oraindik ere, 15-EBkoaren oso gainetik dagoela.

Hona hemen behin-behinekotasuna aztertzean atera daitekeen bigarren ondorioa: *aldagai horretan ere, generoen arteko aldea handiagoa da HEHn*. Berez, 15-EBko emakumeen behin-behinekotasuna gizonena baino 1,3 puntu handiagoa delarik, HEHn 10,3 puntukoa da aldea.

Ondorengo grafikoak behin-behinekotasun tasan dauden diferentziak erakusten ditu, Europako batez bestekoarekin alderatuta.

### BEHIN-BEHINEKOTASUNA TASAK, OROKORRA ETA SEXUAREN ARABERA. HEH (2005eko IV. HIRUHIL.) ETA 15-EB (2005eko II. HIRUHIL.)



Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra eta Eurostat

HEHko gazteen (25 urtetik beherakoen) behin-behinekotasun tasa %72,8koa zen 2005aren amaieran, hau da, 2004ko laugarren hiruhileko-

koa baino 1,1 puntu baxuagoa, eta 15-EBkoaren (%40,3) bikoitza ia. 25 eta 34 urte bitarteko adin-tarteari dagokion tasa %42,9koa izan da, urtebete lehenagokoa baino 0,5 altuagoa, alegia (15-EBren kasuan, ez daukagu adin-tarte horri buruzko informaziorik).

### 3. Langabeziak eragin handiagoa du emakumeen kolektiboan

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkestak (BJA) eta Nafarroako Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestak (BAI) emandako datuek erakusten dutenez, 2005eko laugarren hiruhilekoan, **66.900 lagun zeuden langabezia**; horietatik 33.400 gizonak ziren, eta 33.600, emakumeak. 2005ean zehar, langabeen kopuruak 18.200 laguneko murrizketa izan du, hots, 10.350 gizon eta 7.850 emakume gutxiago daude langabezia. Datu horietan oinarriturik, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

1. Langabezia dauden gizonen eta emakumeen kopurua antzekoa da.
2. Langabeziak 2005ean izan duen jaitsierak eragin handiagoa izan du gizonen kolektiboan.

Biztanle langabeei buruzko kopuru horiek %5,2ko **langabezia-tasa** zehazten dute, 2004ko laugarren hiruhilekokoa baino 1,5 puntu baxuagoa, hain zuzen ere. Gizonen tasa %4,5koa izan da (2004aren amaierakoa baino 1,4 puntu baxuagoa), eta emakumeena %6,1koa (1,6 puntu baxuagoa).

15-EBko langabezia-tasa %7,7koa izan da (HEHkoa baino 2,5 puntu altuagoa); gizonetzkoen tasa %6,9koa izan da (HEHkoa baino 2,4 puntu altuagoa), eta emakumezkoena %8,7koa (2,6 puntu altuagoa).

Gazteei dagokienez, langabezia-tasa %13koa izan da HEHn, 15-EBkoa (%16,6) baino 3,6 puntu baxuagoa. 25 eta 34 urte bitarteko adin-eko langabezia-tasa %7,6koa izan da (kasu honetan ere ez daukagu adin-tarte horren gaineko informaziorik, 15-EBri buruz).

Beraz, HEHn langabezia-tasa 15-EBkoa baino baxuagoa da, bai orokorrean, bai gizonen eta

emakumei dagokienez, bai gazteen kasuan ere.

Duela gutxi, zenbait **aldaketa egin dira** iturri bakoitzak lanari buruzko informazioaren inguruan darabilen metodologian. Horren eraginez (eta *biztanleria langabe* kontzeptua iturri batek bestera ezberdina dela alde batera utzita), **INEM**en datuen arabera dagoen biztanleria langabea **BAI**ren edo **BJA**ren datuen arabera baina handiagoa izatera pasatu da. Berez, logikaren kontra jotzen duen egitate hori ohikoa zen Nafarroan, baina EAEn orain arte ez zen horrela gertatzen; horregatik, aipatzea merezi duela uste dugu.

Ikusi dugunez, **BJA**ren eta **BAI**ren arabera, **HEH**ko biztanleria langabea 66.900 lagunek osatzen zuten 2005eko laugarren hiruhilekoan; **INEM**en datuen arabera, langabeak 105.682 izan ziren abenduan, goian aipatutako iturriek adierazitakoa baino 38.782 gehiago, alegia. Bi iturriek langabeen kopuruari buruz ematen dituzten datuen arteko jauzia esanguratsua da.

#### HEGO EUSKAL HERRIKO BIZTANLE LANGABEAK, BJA/BAI (2005eko IV. HIRUHIL.), INEM (2005eko ABENDUAN)


	BJA/BAI	INEM	ALDEA
EAE	49.100	83.390	34.290
NAFARROA	17.800	22.292	4.492
HEH	66.900	105.682	38.782

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra eta INEM

Hurrengo grafikoan, **generoen arteko aldeak** erakusten dituzten **HEH**ko aldagai batzuk ikusten dira. Lehenengo bi zutabeek honako logika honi erantzuten diote: gizon aktibo gehiago egotearen arrazoia enplegua duten gizonen gehiago egotea da. Hurrengo bi zutabeek, ordea, aurrekoekiko kontraesana agertzen dute, izan ere:

1. Emakume aktiboen kopurua gizonena baino txikiagoa izatea ez dator bat langabezia dauden emakume eta gizonen kopurua antzekoa izatearekin.
2. Enplegua duten emakumeen kopuru txikiagoa ere ez dator bat aldi baterako enplegua duten emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa izatearekin.

#### BIZTANLERIA AKTIBOA, LANEAN, ALDI BATERAKOA ETA LANGABEA (SEXU BAKOITZAK GUZTIZKOAN DUEN PISUA). HEH, 2005eko IV. HIRUHIL.



Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

## 4. Lege-iruzurra, sinatzen diren kontratuetan

Argi dago enpleguaren arazorik handiena behin-behinekotasun handia dela **HEH**n, batez ere, Europar Batasuneko egoerarekin alderatuta. Behin-behinekotasuna ugazaberia aberastakoa pilatzeko garatzen ari den prozesuaren atala da, eta lotura handia du sinatzen diren kontratu motekin.

Hego Euskal Herrian, 2005ean zehar, 1.036.103 lan-kontratu sinatu ziren (2004an baino 32.484 gehiago); kontratu horietatik, 76.776 baino ez dira mugagabeak izan (2004an baino 1.940 gehiago). Beraz, **sinatutako kontratuen %92,6 izan da aldi baterakoa**, 2004ko portzentajeari eutsiz.

Zenbaki horiek kontratazioan gertatzen ari den iruzur handia ezkututzen dute. Eta *emakumeen kasuan, egoera are larriagoa da*; izan ere, gizonen sinatzen dituzten kontratuen %91,8 da aldi baterakoa, baina portzentajea %93,3koa da emakumeek sinatzen dituzten kontratuetan.

**Sinatutako kontratu guztiak aztertzean** ikusten denez, behin-behineko kontratua da gehien erabili den modalitatea (sinatutako kontratu guztien %39,1, hain zuzen ere); ondoren, obra-kontratua (%34), eta bitarteko lan-kontratua (%16,8) datoz. Mugagabe bihurtutako kontratuak alde batera utzita, kontratu mugagabean ohikoena kontratu mugagabe arrunta da (%2,2), eta hurrengoa, enplegua sustatzeko



kontratu mugagabea (%1,7). Modalitate hori, dagoeneko, kontratu mugagabe guztien %42,9a da (berriro ere, mugagabe bihurtutako kontratuak alde batera utzita).

**Gizonek** sinatutako kontratuen kasuan, obra-kontratua da ohikoena (%41,9), behin-behineko kontratua, bigarrena (%38,6), eta bitarteko kontratua (%7,8), hurrengoa. Gizonei dagokienez, kontratu mugagabe ohikoena kontratu mugagabe arrunta da (%2,9), eta horren ostean, enplegua sustatzeko kontratu mugagabea (%1).

**Emakumeen** kasuan, behin-behineko kontratua da erabiliena (%39,6), eta ondoren, obra-kontratua (%26,3) eta bitarteko lan-kontratua (%25,5), emakumeen artean askoz pisu handiagoa hartu duena; horrek eragin kaltegarria du emakumeek, kanporatuz gero, jaso behar dituzten diru-kopuruetan, aldi baterako kontratuen kasuan, lan egin den urte bakoitzeko kalte-ordaina 8 egunekoa den bitartean, bitarteko lan-kontratuetan ez baitago kalte-ordainik. Kontratu mugagabeei dagokienez, emakumeek sinatzen dituztenetan ohikoena enplegua sustatzeko kontratu mugagabea da (%2,3), eta hurrengoa, kontratu mugagabe arrunta (%1,5); horrek ere gutxiago kobratzeko aukera eragiten du, bidegabeko kaleratzeen kasuan, enplegua sustatzeko kontratuari, lan egin den urte bakoitzeko, 33 egun besterik ez dagozkiolako, 24 hilabeteko gehienezkoarekin, kontratu mugagabe arruntari, berriz, lan egindako urte bakoitzeko, 45 egun dagozkiolarik, 42 hilabeteko gehienezkoarekin.

## SINATUTAKO KONTRATUAK. HEH, 2004

	GUZTIRA	GUZTIZKO %	GIZON %	EMAK. %
BEHIN-BEHINEKOA	405.053	39,1	38,6	39,6
OBRA	352.710	34,0	41,9	26,3
BITARTEKOA	173.656	16,8	7,8	25,5
PRAKTIKALDIKOA	8.726	0,8	1,0	0,7
TXANDAKOA	5.048	0,5	0,7	0,2
JUBIL. PARTZIALA	5.045	0,5	0,8	0,1
BESTE BATZUK	4.353	0,4	0,4	0,4
PRESTAKUNTZAR.	3.375	0,3	0,4	0,2
ELBAR. A. BATER.	1.201	0,1	0,2	0,1
ORDEZTE-KONTRAT.	108	0,0	0,0	0,0
LANERATZEKO A.B.	52	0,0	0,0	0,0
<b>ALDI BATERAK.</b>	<b>959.327</b>	<b>92,6</b>	<b>91,8</b>	<b>93,3</b>
MUGAG. BIHURT.	36.755	3,5	4,2	2,9
MUGAG. ARRUNTA	22.414	2,2	2,9	1,5
ENP. SUST. MUGAG.	17.162	1,7	1,0	2,3
ELBARRIENTZAKOA	445	0,0	0,1	0,0
<b>MUGAGABEAK</b>	<b>76.776</b>	<b>7,4</b>	<b>8,2</b>	<b>6,7</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.036.103</b>			<b>100</b>

Iturria: INEM

## 5. 42.000 langile Gizarte Segurantzarik gabe

2005eko abenduan, Hego Euskal Herrian, 1.185.600 pertsona zeuden Gizarte Segurantzaren afiliatuta. Kopuru hori 2005eko laugarren hilabetearen lanean zebiltzan biztanleena (1.227.500) baino nabarmenki txikiagoa da; hortik ondoriozta dezakegunez, **41.900 lagun izan daitezke Gizarte Segurantzaren alta eman gabe dabilzanak lanean.**

## 6. Enplegu-erregulazioa urritu egin da

2005eko urtarriletik azarora bitartean, enplegu-erregulaziorako **430 espediente** baimendu dira, 2004ko epealdi berean baino 55 gutxiago, alegia. Espedienteok **8.440 langilerengan** izan dute eragina, hau da, aurreko ekitaldian baino 1.518 langile gutxiagorengan.

## 7. Lan-istripuak ugaritu egin dira

2005ean, baja eragin duten 66.759 lan-istripu jazo dira HEHn, hau da, aurreko urtean baino 4.644 gehiago. Istripu horietatik 769 larriak izan

dira edo hildakoren bat eragin dute; horrelako istripuak 2004an gertatutakoak baino 38 gehiago izan dira. **Bai istripuen kopuru osoa, bai istripu larriena eta hildakoak eragin dituztenena nabarmenki areagotu dira 2004koen aldean.**

Lan Arriskuen Prebentziorako Legea indarrean hasi eta hamar urtera, ugazaberiak sistemaz urratzen du lege hori, hots: ez dute Laneko Segurtasun eta Osasunean inbertsiorik egiten, azpikontratazioa sustatzen dute, enpleguaren ezegonkortasuna areagotzen dute eta lan-erritmoak bizkortu beharra lehenesten dute, langileen segurtasunaren eta osasunaren aurretik. Alegia: **nahiago dute enpresaburuaren mozkinak ziurtatu, langileen segurtasuna eta osasuna babestu baino.**

## 8. Ekonomiak gorantz jarraitzen du

**EAEko Produkzio Industrialaren Indizeak** %4ko igoera izan du 2005ean, hau da, 2004an baino askoz gehiago igo da, urte horretan %1,9 hazi zen eta.

Urtarrietik abendura bitarte, **Nafarroako Jarduera Industrialaren Indizea** %0,1 jaitsi da 2004koarekiko; datu horrek atzerapena adierazten du 2004koaren aldean, ekitaldi horretan %5,5 hazi zen eta. Hala ere, ikusiko dugunez, Nafarroako BPGa hazi egin da 2005ean.

Ondorengo grafikoan, EAEko eta Nafarroako ekonomiek 2004ko eta 2005eko ekitaldietan hiruhilekoz hiruhileko izan dituzten gehikuntzak ikus daitezke, bai eta inguruko ekonomiek izandakoak ere.


EAEko BPGa da hazkunderik handiena izan duena, 2004an zehar %3,3 eta 2005ean %3,7 hazi da eta. Hurrengo hazkunderik handiena *Espainiako Estatuko* BPGarena da, %3,1 eta %3,4 hazi baita, hurrenez hurren, aipatutako bi ekitaldi horietan. *Nafarroako* Barne Produktu Gordinak %3,5 eta %3,2ko gehikuntzak izan ditu, hurrenez hurren. Hortaz, HEHko ekonomiak %3aren gainera hazi dira, eta, beraz, enplegua baino gehiago areagotu dira; bestela esateko, ekonomiaren hazkunderik ez du beste horrenbesteko enplegua sortu.

Hazkunderik handiena Europar Batasuneko ekonomiek izan dira, 2004an %2,3 hazi zen 2004an, eta %1,4 2005ean, 25-EBkoa hazi denaren (%2,4 eta 1,6) zertxobait azpitik.

*Alemania*, esaterako, Europako ekonomiaren hazkunderik handiena eragiletzat hartu izan delarik ere, hazkunderik txikiagoa izan du (%1,6 2004an eta %0,9 2005ean).

Ekonomiaren mundu-mailako hazkunderik handiena bultzatzaile iritzi izan zaion beste herrialde bat, *Estatu Batuak*, atzean uzten ari da hazkunderik txikiagoko urteak, eta bertako BPGak %4,2 eta %3,5eko hazkunderik izan ditu, hurrenez hurren, 2004an eta 2005ean.

### BPGaren URTEARTEKO GEHIKUNTZAK. 25-EB (2004, 2005)



Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Instituto Nacional de Estadística eta Eurostat

**EAE**n, 2005ean, BPGaren gehikuntza zer sektorek sustatu duten aztertzean ikusten denez, hazkunderik handiena eraikuntzak eragin du (%6), ondoren nekazaritza eta arrantzak (%5,8), gero zerbitzuek (%3,2) eta, sektore horren ostean, industriak (%2,7). Sektore bakoitzaren bilakaera aztertzen dugunean, garrantzitsua da bakoitzaren pisuari ere erreparatzea. Ildo horretan, EAE, zerbitzuen sektoreari BPGaren %54,9 egokitu zaio 2005ean, industriari %25,4, zergeri %10,4, eraikuntzari %8,3 eta nekazaritza eta arrantzari %0,9.

**Nafarroan** ere, eraikuntzan jazo da gehikuntzarik handiena (%4,8), ondoren zerbitzuetan (%3,8) eta gero industrian (%1,7), nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza ez baitira hazi, 2005ean. Sektore bakoitzak BPGan duen pisuari dagokionez, zerbitzuen sektoreak BPGaren





%54,7 eragin du, industriak %26,7, eraikuntzak %8,7, zergek %7,5, eta nekazaritzak, abeltzaintzak eta basogintzak %2,5.

### BPGaren URTEARTEKO GEHIKUNTZAK (SEKTOREZ SEKTORE). EAE ETA NAFARROA, 2005

	LEHEN S.	INDUSTRIA	ERAIK.	ZERBITZ.
EAE	5,8	2,7	6	3,2
NAFARROA	0	1,7	4,8	3,8

Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

## 9. Prezioek 15-EBkoen gainera hazten segitzen dute

2005ean, prezioek %3,7ko gehikuntza izan dute, Espainiako gobernuak aurreikusitako %2aren oso gainera.

Igoera hori **Europar Batasuneko baina askoz handiagoa** izan da, Europako KPIa,

2004an bezala, %2,2 hazi da eta. Horrek argi uzten du prezioen igoera, gure kasuan, ez dela bakarrik petrolioaren prezioaren igoeraren eta nazioarteko egoerarekin loturiko beste arazoaren ondorio.

Prezioen igoeraren **eragile nagusia enpresamozkinen gehikuntza handia** da, Espainiako Bankuaren eta Balore Merkatuko Batzordearen datuek erakusten dutenez.

Beraz, KPIaren igoera gerarazteko, ezin da soldatei eutsi beharren aitzakia erabili; are gehiago: **lan-errentei** sortzen den **aberastasunean dagokien partaidetzari eutsi ahal izateko, soldatek** orain arte **baino gehiago hazi behar dute**, horretarako beste marjina egon badago eta.

Dirudienek, prezioen goranzko joera horrek ez du etenik, datuek frogatzen duten bezala: 2006ko urtarrilean, prezioen urtearteko gehikuntza %4,2koa izan da, eta otsailean, %4koa.

## Autonomia pertsonala sustatzeko eta menpekotasun-egoeran daudenei laguntzeko lege aurreproiektua. ELAren balorazioa

Espainiako gobernuak autonomia pertsonala sustatzeko eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko lege-aurreproiektua aurkeztu du (*menpekotasunari buruzko legea* esaten zaio). **Aurreproiektua ez da inola ere onargarria, izan ere:**

### 1. Ez du estaldura unibertsalik eskaintzen

TPertsona guztiok behar dugu zainketaren bat gure bizitzako une batean edo bestean, eta behar hori, zenbaitetan, areagotu egiten da, adinekoen edo urritasunen bat dutenen kasuan, esaterako. Hala ere, lege-aurreproiektuak ez du pertsona guztien beharrei erantzun egiten menpekotasun-estaldura bermatzen. Adibidez, "zerbitzuen onuradun izateko lehentasuna eta prestazioen zenbatekoa eskatzailearen menpekotasun-mailak eta ahalmen ekonomikoak erabakiko dituztela" dio; beraz, **onartu egiten da estaldura ez dela dauden behar guztiei erantzuteko nahikoa izango**, eta ez dela erabateko estaldura eskainiko.

Hainbat arrazoi ditugu eskaintzen den estaldura ez dela unibertsala baieztatzeko:

a) Berez, **ez da benetako eskubide efektiborik bermatzen**. Edukiak erabat orokorrak dira, eta ez da ezer zehazten etxez etxeko laguntza, egoitza, prestazio ekonomiko eta beste edozein laguntza lortu ahal izateko bete behar diren baldintzen gainean. Ildo horretan, 3. artikuluan dioenez, Legearen oinarrietako bat "menpekotasun-egoeran dauden pertsona guztientzako aukeraren unibertsaltasuna" da, "erabateko berdinta-

sunezko eta bereizkeriarik gabeko baldintzetan, Legeak xedatutakoari jarraituz"; dena den, irizpide hori ez da zehazten aurreproiektuan zehar.

Era berean, Zerbitzuen Katalogoa (etxez etxeko laguntza, egoitza,...) aipatzen duen 13. artikularen 3. atalak diotenaren arabera, "Menpekotasun Sistema Nazionalaren Lurralde Kontseiluak erabakiko du Katalogoan aurreikusitako zerbitzuetako bakoitzaren oinarritzko babes-intentsitatea..., Gobernuak Errege Dekretu bidez onar dezan". Alegia: eskubide efektiboak zehaztu gabe uzten dira.

Beraz, ez da egia herritar-eskubide berri bat, edo eskubide unibertsal bat ezartzen ari dela. Baieztapen horiek propaganda hutsa dira, eta oso urrun daude errealitatetik.

- b) **Menpekotasun-mailak** bere garaian erabakiko den sistema baten bidez xedatuko dira, baina sistema horri buruz ere **ez da ezer zehazten**. Zehazki, aurreproiektuaren 25. artikuluan adierazten denez, "balorazioa egiteari begira, menpekotasunaren tamaina eta mailak Menpekotasun Sistema Nazionalaren Lurralde Kontseiluan erabakiko den baremoaren bitartez zehaztuko dira, ondoren Gobernuak, Errege Dekretu bidez, onar ditzan"; horren arabera, argi dago menpekotasunaren tamaina edo maila zehazteko erabiliko den baremoa taxutu gabe dagoela oraindik, eta, beraz, eskubidea ere bai. Menpekotasun-estaldura, era berean, ezartzen den menpekotasun-mailaren arabera izango da; ondorioz, zertaz hitz egiten ari garen ez badakigu, ezin esan daiteke eskubide efektiborik xedatzen ari denik.
- c) Zerbitzuaren onuradunen (edo menpekoen) ekarpenekin osatuko den finantzaketa publikoa planteatzen da, hau da, **ordainkidetza-sistema** deritzona, baina hori ere zehazten ez denez, ez dakigu zer kopururi edo errenta-mailari buruz ari diren. Zentzu horretan, 12. artikularen 5. puntuak dioenez, "Zerbitzuen onuradun izateko lehentasuna eta aurreko ataletan aipatutako prestazioen zenbatekoa eskatzailearen menpekotasun-mailak eta ahalmen ekonomikoak erabakiko dituzte", eta horri honako hau erantzen zaio: "Lege honen ondoreetarako, ahalmen eko-



nomikoa arauz ezarriko den moduan zehaztuko da, eskatzailearen errentaren eta ondarearen arabera". Hortaz, airean dago guztia, arauz ezarri behar den horren zain.

Haien hitzetan, baliabiderik ez edukitzeagatik ez da inor laguntzarik gabe geratuko, baina, itxura guztien arabera, zerbitzua, edo estaldura, edo prestazioa, ezberdina izan daiteke bakoitzaren diru-sarreraren arabera.

d) Bestalde, 5. artikulua 1. puntuaren b) atalean, "3 urte edo gehiago izatea" aipatzen da Legean xedatutako eskubideen titular izateko baldintzatzat. Beraz, **menpekoen taldean, 3 urtetik gorakoak baino ez** dira aintzat hartzen; zer gertatzen da urritasunen bat duten 3 urtetik beherakoekin? Are gehiago, 3 urtetik beherako ondorengoztat, ez da aurreikusten oraingoa osatzeko ezelako estaldura publikorik, nahiz eta kolektibo horren asistentzia estali gabe dagoen (baita hezkuntza-sistemaren esparruan ere).

e) **Estaldukatik kanpo uzten ditu etorkin gehienak**; izan ere, 5. artikulua honako hauek aipatzen ditu eskubideen titular izateko bete beharreko baldintzen artean: "Espainiako lurraldean bizitzea eta bertan bost urtez bizi izana, bost urte horietatik azken biek eskaera egiten den data baino lehentxeagokoak izan behar dutelarik", eta "Espainiako nazionalitatea ez dutenentzat Espainian bizi diren atzerritarren eskubide, askatasun eta gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan, nazioarteko akordioetan eta jatorrizko herrialdearekin egiten diren hitzarmenetan xedatutakoa izango da manuzko".

Horrela, zerbitzua jasotzeko aukeratik kanpo uzten ditu etorkin gehienak, baina estaldura finantzatzeari begira, bai hartzen da kontuan kolektibo horren ekarpena (zergak ordaindu egiten ditu eta).

f) Estalduaren helmena erabat eskasa da, BPGaren %1eko **gastu publikoa** besterik ez baita planteatzen horretarako (Autonomia Erkidego guztiek Espainiako Estatuak bermatzen duen gutxieneko estaldura gehitzea erabakitzen baldin badute); ehuneko hori ez da inondik ere nahikoa menpekotasunarekin

loturiko premia guztiei erantzuteko (eta premiak gero eta gehiago dira).

EAEEn, adibidez, BPGaren %1,7 bideratzen da gizarte-zerbitzuetara, hots, akordioan planteatzen dena baino gehiago, eta, hala ere, oraingo estaldura-maila oso urria da.

Gainera, menpekotasun handia duten hirurogeita bost urtetik beherakoekin laguntza pertsonalizatua emateko gaur egun badagoen prestazio ekonomikoa ere BPGaren %1 horren barruan dago.

Gauzak horrela, aurreproiektuaren 30. artikulua garbi azaltzen du "Lege honetan azaltzen diren prestazio ekonomikoetako bat jasotzen bada, horren zenbatekoa deskontatu egingo da gizarte-babeserako araubide publikoetan xedatuta dagoen eta antzeko izaera eta xedea dituen beste edozein prestaziorenetik". Urritasunen bat duten pertsonen euren egoeraren ziozko beste ezein prestazio jasotzeko aukera guztiak kentzen dizkie horrela.

g) **2015era arteko epea** (9 urtekoa!) **ezartzen da** plana erabat indarrean hasteko. Kontuan hartzen badugu benetako eskubide zehatzik ez dela aipatzen, epe horrek adar-jotze hutsa dirudi (urtean, xede horretan, BPGaren %0,1 gehiago gastatzea aurreikusten dute; kopuru murriztuz horrekin, ezin da gauza handirik egin, pertsonen zainketa bermatzeko).

## 2. Ez du estaldura publikoa bermatzen

Ondoren azaltzen ditugun lau arrazoiek argi uzten dute menpekotasun-egoerei ez zaiela estaldura publikoa bermatzen.

a) Aurreproiektuak ezartzen duenez, zerbitzua jasotzeko aukerarik ez dagoenean, menpeko pertsonaren menpekotasun-mailaren eta errentaren araberako prestazio ekonomikoa emango zaio, pertsona hori zuzenean zerbitzu pribatuetara joan ahal izateko. Hortaz, estalduaren zati bat erakunde pribatuek (edo gizabanakoek) gauzatuko dutela planteatzen da, baina ez da zehazten estaldura mota bakoitzaren portzentajea. Berez, aurreproiektuan zehar sarritan azaltzen dira ekimen pribatuaren parte-hartzeari buruzko

aipamenak. Adibidez, 3. artikulua j atalean, "ekimen pribatuaren parte hartzea menpekotasun-egoerari erantzuteko zerbitzu eta prestazioetan" aipatzen da Legearen funtsen artean. Era berean, 6. artikulua 2. puntuan, honako hau dio, sistemaren xedea deskribatzen: "Sistema erabilera publikoko sare gisa eratzen da, eta zentro eta zerbitzu publikoek zein pribatuak osatzen dute, koordinaturik". Horri buruz, hainbat iruzkin egin ditzakegu:

- Zerbitzu publikoen eta pribatuen arteko lankidetzak aipatzen da, baina ez da ez hierarkiarik ez lan-ildo estrategikorik zehazten; beraz, pentsa dezakegu *arlo pribatua garatzera joko dutela*.
- Ildo horretan, enpresa pribatuak eskaintzen duten zainketa edo *zerbitzua ez da zerbitzu publikoa bezain egokia izango*, enpresa pribatuen helburua ahalik eta mozkin gehien lortzea da eta.
- Horretarako sortuko diren *lanpostuak kalitate txarrekoak* izango dira, enpresek zerbitzua lortzeko lehian aritu beharko dutenez, ez baitute lan-baldintzak murrizteko erreparorik izango.

b) "Menpekotasun-egoeran dauden pertsonak, ahal den guztietan, euren bizitza garatzen den inguruan geratzea" da aurreproiektuaren oinarrietako bat; horrek esan nahi du **lehenengo aukera** menpeko pertsonak **euren etxeetan** geratzea dela. Horrek, praktikan, zerbitzurik ematen ez bada, familien gainean ?batez ere, emakumeen gainean? utziko du zaintzaren ardura, orain arte bezala.

Aurreproiektuaren 17. artikulua 1. puntuan xedatutakoaren arabera, "Salbuespen gisa, onuraduna bere etxean zaindu ahal badute senitartekoak, 12.3 artikulua aipatzen diren baldintzak betez gero, familiaren zainketarako prestazio ekonomikoa ezarriko da". Beraz, **senitartekoak zaintzen dituzten** menpeko pertsonentzako **prestazio ekonomikoa** eratzen da (eta hori ere menpekotasun-mailaren eta ahalmen ekonomikoaren arabera emango da). Zeregin hori edozein kasutan ere egin beharko luketen familiak direnez, asmoa zerbitzua edo pres-

tazioa eskainiz baino diru gutxiago gastatzea dela dirudi; horrela, menpeko pertsona gehienek euren senitartekoen (kasu gehienetan, emakumezkoen) zaintzapean segituko dute, diru gutxiago gastatuta.

**Senitarteko zaintzaileei** dagokienez, aurreproiektuaren 17. artikulua 3. puntuak honako hau ezartzen du: "zaintzaile nagusiak Gizarte Segurantzako afiliazio, alta eta kotizazioaren gaineko arauetan xedatutakoa bete egin beharko du"; beste ezer zehazten ez duenez, pentsa daiteke, Espainiako Gobernuak lan-erreforma egiteko aurkeztutako proposamenari jarraituz, senitarteko zaintzaileak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko aprobetxatuko dutela, baina erregimen horretako **eskubide guztiak esleitu gabe**.

c) Horrez gain, beste pribatizazio-bide bat irekitzen da, aurreproiektuaren zortzigarren xedapen gehigarriak diotenaren arabera: "Lege honetan jasotako zerbitzuen onuradunen finantzakidetzak errazteko, menpekotasuna estaltzeko tresna pribatuen tratamendu fiskala arautzeari ekingo zaio". Hortaz, argi esaten du **menpekotasun-aseguru pribatuak** garatuko direla; horrek, alde batetik, eskubide publikoak nahikoak ez direla onartzea suposatzen du, eta, bestetik, diru publikoaz (zergak arinduz, esaterako) gutxi batzuen onura sustatzeko bidea zabaltzen du, gehiengoaren kaltetan ?batez ere, laguntza publikoa gehien behar duten kolektiboentzat? Gizarte-politikerarako diru publikoa gastu publikoaren bidez erabili behar da, zerga-arintzeen bidez barik, horiek atzerakorrak dira eta.

Menpekotasunarekin loturiko prestazio ekonomikoetan **PFEZren beste albuespen bat** aurreikusten du aurreproiektuak. Albuespen hori Espainiako Gobernuak prestatzen ari den PFEZren erreforma-proiektuan ere aipatzen da.

d) **Boluntarioaren figura** aipatzen da, profesionalak bete eta erabateko estaldura izan beharko luketen premiei erantzuteko.



### 3. Estatu mailako legeria inposatzen du espainiako estatu osorako

Espainiako Konstituzioaren 149.1.1 artikulua arabera, Konstituzioan xedatutako eskubideen erabileran eta betebeharren konplimenduan Espainiar guztien berdintasuna bermatuko duten oinarriko baldintzak arautzeko eskumena Espainiako Estatuari bakarrik dagokio. Artikulu horretan oinarrituta, menpekotasunari erantzuteko laguntza arautzen duen **Oinarriko Legea** sortu du Espainiako Estatuak. Lege horrek Espainiako lurralde osoan bermatu behar diren eta **Espainiako Gobernuak** finantzatuko dituen gutxienekoak jasotzen ditu. Ildo horretan, Legeak Espainiako Gobernuaren esku uzten ditu bermatutako gutxieneko estaldura-mailaren gainean hartu beharreko erabaki guztiak, eta, horrela, **inbaditu egiten ditu Nafarroako eta EAEko instituzioek** gizarte-zerbitzuen arloan dituzten **esku-men esklusiboak**.

Bermatutako gutxieneko hori oinarri hartuta, hauxe dio aurreproiektuak: "**Autonomia Erki-degoko** eta Toki **Administrazioek, euren ekimenez eta euren aurrekontuen pentzudan**, areagotu egin ditzakete zerbitzuen katalogoan islatutako intentsitateak". Ildo horretan, EAERI eta Nafarroari dagokienez:

a) Autonomia Erkidegoek Espainiako Estatuak eskaintzen dituen *zerbitzuen* katalogoa

*osatu besterik ezin dute*, baina ez dute Espainiako Estatuak menpekotasunaren zioz emango dituen *prestazio ekonomikoak* hobetzerik izango.

- b) Estatu osorako xedatutako gutxieneko zerbitzuak hobetzeko aukera ematen die Autonomia Erkidegoei, baina gerta liteke EAEn (gaur egun, BPGaren %1,7 gastatzen du gizarte-zerbitzuetan), Legearen aitzakiaz, gizarte-zerbitzuetara *orain baino baliabide gutxiago zuzentzea* erabakitzea. Berez, Espainiako Gobernuak bermatutako gutxienekoa handitzea erabaki arren, orain baino BPGaren 0,7 puntu gutxiago bideratuko liriteke xede horretara.
- c) Edonola ere, Menpekotasun Sistema Nazionalaren Lurralde Kontseiluaren esku gertzen dira menpekotasunaren inguruko alderdi garrantzitsu batzuk, hala nola beraren balorazioa edo ordainkidetza; hau da, ez dagozkien eskumenen alderdi erabakigarrietan sartzen dira.

Beraien eskuduntza propioak erabiliz, bai EAEk eta bai Nafarroak Dependentsiaren Legea egina eduki beharko lukete jada; hala ere, Lege hau espainiar Estatuan burutu denean baino ez dute gaia hartu. Hori horrela, **behar-beharrezkoa da bai EAEn bai Nafarroan menpekotasun-egoeran dauden pertsona guztiak zainketa-rako duten eskubide efektiboa bermatzeko legeak egitea, bai eta, horri begira, menpekotasunari erantzuteko sistema publiko eta unibertsal propioa eratzea ere.**

**OHARRAK:**

